# Urte berritik Eguberriei begira

Elgoibar - 975. zenb. XXIV urtea - 2016-01-08

BARREN

TOKIKOM



Arg.: Jonatan Martin

# Gremioen gida

Aroztegiak
Elektrizitatea
Igeltseritza
Iturgintza
Leihoak
Pintura

## AROZTEGIAK

**iraolagoitia**
aroztegia · altzariak · etxe-aldaketak
Kurutz-gain industriagunea, 9
20850 Mendaro
Tel.: 943 756 112 / 636 497 485
www.iraolagoitia.com

**IMAR AROZTEGIA**
Olaso industrigunea, 17 behea
943 531 471
609 054 978
carpinteriaimar@hotmail.com

**BIENA S.L. AROZTEGIA**
Ermuaranbide, 12-14-16
tel/fax. 943 743 116
www.biena.eus
info@biena.eus

**ASIMA**
Aroztegia · Carpintería
Ermuaranbide, 18 - Elgoibar
687 150 226
650 026 631
636 886 322
943 744 225
asimaaroztegia@gmail.com

**Ulazia**
AROZTEGIA ETA ENBALAJEAK
Albitxuri industrigunea, 1-O/ 1-P
943 740 547

## ELEKTRIZITATEA

**iparelek s.l.**
elektrizitatea
Kilimon hiribidea, 1 - Mendaro
943 530 356
iparelek@gmail.com
iparelek@iparelek.com

**ELECTRICIDAD AZPELETA**
San Frantzisko, 51
Elgoibar
Tel.: 943 741 238

**CARRANZA, ELEKTRIZITATEA**
Uparitzaga 10, 6.B
Elgoibar
karranzajl@gmail.com
Tel.: 943 741 280
Jose Luis: 626 555 999

**electricidad PEROSANZ**
www.electricidadperosanz.com
eibar@electricidadperosanz.com
Ibergain 17, AC behea
Tel.: 943 202 208
Faxa: 943 206 045
20600 EIBAR
Herriko Enparantza 5
Tel.: 943 033 535
20850 MENDARO

**egoluz**
ELEKTRIZITATEA S.L.
(lehen TAES)
Ego-Gain, 9 AC
20600 EIBAR
Andres: 630 957 345
Raimon: 677 512 462
Bulegoa: 943 200 697

## IGELTSERITZA

**E. ARANDIA**
ERREFORMA ETA LEIHOAK
Urasandi, 22 behea - Elgoibar
Tel.: 605 705 204
Gremioen arteko koordinazioa.
Pladurrarekin ere lan egiten dugu.

**IGELTSERITZA CAMILO ALVAREZ**
Jardiñeta, 25 behea
EIBAR
Ernesto: 620 060 104
Fran: 600 465 789

## ITURGINTZA

**SANTANA**
Igor Santana
ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.
Urazandi kalea 17, behea
Elgoibar
943 740 530 / 605 714 905
santanaiturgintza@gmail.com

**PAGOERROTA ITURGINTZA**
Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
943 75 60 44 / 628 529 692
Faxa: 943 75 60 37
pagoerrota@pagoerrotaiturgintza.com
www.pagoerrotaiturgintza.com

**ongi iturgintza**
Pedro Muguruza Etorbidea, 11
ELGOIBAR
Tel.: 943 254 522
Faxa: 943 254 523
ongi@ongielgoibar.com
www.ongielgoibar.com

**FONTANERÍA Ibámar ITURGINTZA**
San Roke 10-A, behea B
Elgoibar
Floren Cid: 647 463 436
ibamar@euskalnet.net

**TELLABIDE ITURGINTZA**
Azpilgoeta 7 behea - Mendaro
Tel.: 943 755 062 / 607 755 062
iturgintzatellabide@hotmail.com

**ZUBIZARRETA intalazioak**
Ubitarte plaza, 5 behea
Elgoibar
943 740 789
650 586 144

**PAGOAGA S.A.**
BULEGOA ETA ERAKUSKETA
Pedro Migel Urruzuno, 8
Tel.: 943 740 512 / Faxa: 943 743 585
tienda@pagoagasa.com
www.pagoagasa.com
BILTEGIA
San Antolin, 13 - Tel.: 943 740 279
taller@pagoagasa.com
ELGOIBAR

## LEIHOAK

**LODOSO LEIHOAK**
SIGMA INDUSTRIAGUNEA, 223
lodosofj@gmail.com
Tel.: 943 74 34 90

## PINTURA

**BIOK dekorazioa**
Uparitzaga, 14 - Elgoibar
943 741 552
606 431 120
biok@biokdekorazioa.com

Gremioen gida







## ABEL ARRIAGA

*“Aitatasuna gauza handia da, polita. Lehen hilabeteetan baita gogor samarra ere. Baina lasai, Andoitz, umeetan adituak nahi adina aurkituko dituzu inguruan”*

Urte berri on, Andoitz! Urte berriari hasiera, urtarrilaren 1ean baino, azaroaren 6an eman zeniola esango nuke nik. Izan ere, munduak eguzkiaren inguruan bira osoa ematea baino arrazoi pisutsuagoa iruditzen zait zurea. Aitatasuna gauza handia da; polita. Lehen hilabeteetan baita gogor samarra ere, ezer gutxi baitakigu umeez. Dena da berria, dena daukagu ikasteko, dena esperimentatzeko… Baina lasai, Andoitz, umeetan adituak, nahi adina aurkituko dituzu inguruan: familian, koadrilan, kalean, lanean, *Zozoak Beleari* atalean. Negarrez ari bada, gosea, logura, haizeak edo-eta hortzak izan daitezke, aldameneko adituaren arabera. Gai honen inguruan asko gara sasi-adituak, baina ezer gutxi dakigu; liburu eta artikulu asko aurki ditzakegu, baina ia ezer ez dago idatzita. Teoriak asko daude, denen gustukoak, denak balekoak. Batzuek etengabe muxukatu behar direla diote; beste batzuek, negar egiten utzi behar zaiela. Badira instintiboki hezi behar direla diotenak ere. Zenbat aditu, hainbat teoria.

Baina denborak ez du etenik. Poliki-poliki eta bizitzak hala nahi badu, etxeko txikienak handitzen doazen heinean, gu zahartzen joango gara. Orduan, beraiek izango dira teoria ezberdinen aginduetara, gu ahalik eta hobekien zaintzen saiatuko direnak. Bakoitzak bere erara egingo du, honen inguruan ere askorik ez baitakigu. Elkar gutxi ezagutzen dugun hiru belaunaldiren arteko elkarbizitza eta talka ematen da etengabe: asko daukagu batak bestearengandik ikasteko…

Teoriak teoria, osasuna ez dakiela falta gure etxeko txikienei eta adinekoei. Ezta guri ere. Hori da garrantzitsuena. Disfrutatu!





## ANDOITZ AGIRREGOMEZKORTA

*“Nik asko eskertzen dittut hala ere gomendixo horiek, zeren zuzenak izan ala ez borondate onenakin eindakuak dira danak, eta neretzat hori nahikua da”*

Eskerrik asko Abel eta urte berri on zuri ere! Etengabe ikasten gaudela diote, Heraklitok zion bezela ezin gera bi aldiz erreka berian bainatu. Egunetik egunera bizitzak hori erakusten dit, eta Maialenek “kaixo” esan zigunetik are eta gehixago. Zer esango dizut ba zuri, bi haurren aitta zeran horri?

Belaunaldixen arteko harreman hortan ba omen da bizitzan sasoi bat, bokadilluaren garaixa deitzen diotena. Azpittik seme-alabak hazteko biharra daukazu, eta gaiñetik berriz gurasuen zaintza. Momentuz behintzak amak osasun ona dauka eta ez jata tokau, baina gertauko balitz aurre egingo diot ahal doten naturaltasun haundixenakin. Bizixan legia dala deritzot, belaunaldixen arteko loturiaren ondorixua.

Bestalde, guri ere heltzen jaku aipatu dozun haurrekiko gomendixo jarixua, kalian, lanian eta etxian. Zenbat buru, hainbat esperientzia, eta bakoitzak beria. Geuk ere geure esperientzia bizi dogu ta seguraski gainontzekuekin gauza asko dauzka amankomunian eta beste asko ez. Nik asko eskertzen dittut hala ere gomendixo horiek, zeren zuzenak izan ala ez borondate onenakin eindakuak dira danak, eta neretzat hori nahikua da.

Segi deigun ba joko hontan, bizitzan oinarri-oinarrixan baitago ondorenguek gu utzitakotik jarraitzia. Portzierto, inork Heraklitoren errekiaren pasartia praktikan ipintzia nahi badu, udara arte itxoiteko gomendauko nioke. Horrenbeste esperotako negua behingoz iritsi da-ta. Ongi etorri zu ere bai!



JESUS JIMENEZ — Ekonomialaria

# Tokian tokiko txanponak

Duela gutxi jakin dugu Euskadi dela internet bidez erosketa gehien egiten dituen erkidegoa. Lehen gure etxe pareko dendetan erosten genituen gauzak orain Txinatik edo Alemaniatik bidaltzen dizkigute gure etxera. Ezin da ukatu hau dela mundu globalizatu baterantz pausoak ematen ari garenaren seinaleetako bat.

Badira, hala ere, aurkako norantzan sortzen diren ekimenak. Dolar, Yen edo Euroaren aurrean, aipatutako globalizazioaren erreferenteen aurrean sortu diren tokian tokiko txanponak, hala nola, Iparraldeko Euskoa, Bilbo Zaharreko Ekhia edo Oñatiko Txantxia besteak beste, gertuko hiru adibide aipatzearren. Hala ere, mundu guztian gertatzen ari den oihartzun urriko mugimendu zabal bat da.

Helburuen artean, monetaren jatorrizko eremuan kontsumoa fidelizatzea, gastu-ihesa murriztea eta tokiko saltokien eskaera sustatzea bertako merkataritzaren mesedetan. Hau da funtsean enpresa eta saltoki txikiei tokian tokiko monetak eskaintzen diena. Era berean, kontsumitzaileek txanpon hauek erabiltzean beste onura batzuk jasotzen dituzte. Kasu batzutan dendetan deskontuak eta eskaintza bereziak, edota bertako txanpona erosterako orduan hobari bat jasotzea eta hau ekintza sozialetara bideratzeko aukera izatea. Hau da tokian tokiko moneta desberdin hauen ezaugarri komuna, autokudeaketa solidarioa, iraukorra eta gizakiari hurbilagoa eraikitzea.

Tokian tokiko txanpon hauen jaulkipenean dagoen borondatea denbora luze batez praktikan ikustea falta da, lehen aipatutako mundu globalizatuak sortzen dizkien oztopoak gainditzeko eta kontsumitzaileengan luzaroan bertako monetak erabiltzeko grina mantentzeko gaitasuna erakustea. Hor dago erronka.

*"Globalizazioaren erreferenteen aurrean sortu dira tokian tokiko txanponak, hala nola, Iparraldeko Euskoa edo Bilbo Zaharreko Ekhia"*

BARREN

**Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR - 943 744 112 - *barren@elgoibarkoizarra.eus***
***www.barren.eus***
**Publizitatea: 943 743 704 - *barren.publi@elgoibarkoizarra.eus***

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENek ez du bere gain hartzen Iritzia, Zozoak Beleari eta eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. KOORDINATZAILEA Oier Narbaiza KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Irati Agirreazaldegi, Oier Narbaiza HIZKUNTZA ARDURADUNA Oier Narbaiza PUBLIZITATEA Leire Rubio MAKETATZAILEA Zaloa Arnaiz ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA Aitor Lauzirika ADMINISTRARIAK Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro KOLABORATZAILEAK Garazi Ayesta, Nora Hadi, Ibon Serrano, Arkaitz Irureta, Nora Kortaberria, Nerea Gurrutxaga, Andoitz Agirregomezkorta, Abel Arriaga, Inma Mugertza, Ander Izagirre, Ana Alberdi, Eneko Iturbe, Javi Muñoz, Rafa Furnier, Eire Vila, Mikel Olaizola, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Aihnoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Eider Iriondo, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Enetz Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Mujika, Ander Soraluze. INPRIMATEGIA Gertu Koop.E. TIRADA 4.860 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

ARGITARATZAILEA: ELGOIBARKO IZARRA

LAGUNTZAILEAK: Elgoibarko Udala, Mendaro, elgoibar, Gipuzkoako Foru Aldundia, EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

*Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua*

BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: *barren@elgoibarkoizarra.eus*

## MUGI DAITEZEN HARRIAK

Abenduaren 31n herri argazkia egin genuen 19:00etan Kultur Etxe parean, urteko azken egunean euskal presoak gogoan izateko. Herriko lau gaztek egin genuen deialdia egun batzuk lehenago eta jende asko elkartu ginen. Eskerrak eman nahi dizkiegu argazkira bildu ziren guztiei, zahar nahiz gazte aurpegi ezberdin asko ikusi genituen eta. Kultur etxe pareko eskulturari soka lotu eta sokatiraren keinua eginez aurten urtarrilaren 9an Bilbon eta Baionan egingo diren mobilizazioetara deitzeko aprobetxatu genuen unea. *Mugi daitezen harriak* lelopean urteroko hitzordua egingo baita larunbatean, presoen sakabanaketaren aurka. Gogoratu, mobilizazioetara joateko autobusak egongo direla, eman izena Iturrin eta Jai Alain. Urte berri on, eta euskal presoak Euskal Herrira!

**Ainhoa Lendinez**

## ESKERRIK ASKO

Eskerrak eman nahi dizkizuegu azaroaren 7ko *Mendaro Sasoian* jardunaldietan parte hartu zuten mendaroar guztiei eta Mendaroko Udalari ere. Eskerrak merkaturako gauzak eman eta erosten ibili zirenei; kus-kus solidarioa jan zutenei; modu boluntarioan euren denbora eta lana eskaini zutenei; janaria prestatzen ibili zirenei; montatzen eta desmontatzen ibili zirenei… 950 euro (gastuak kenduta) lortu eta gero Mugarik Gabeko Medikuak erakundean ingresatzea posible egin zuten guztiei. Mila esker

**Mendaro Sasoian ekimeneko antolatzaileak**

## ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inizialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inizialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak…
6. Ez dugu gazteleraz datorren eskutitzik argitaratuko.










# Eguberriei errepasoa

Saridun guztiak ordezkari politikoekin.





Aitor Rodriguez (wing tsun)


Iñaki Gil (eskubaloia)


Luis Mendibil eta Modesto Cid (mendizaletasuna)


Aitor Hernandez (saskibaloia)


Jonathan Taborcia (tenisa)


Santiago Fernandez (areto futbola)


Iban Fernandez (xakea)


Igor Txurruka (pilota)


Maria Dolores Peña (karatea)

# Kirol sariak 2015




Pilotariekin mahai-ingurua: Abel Barriola, Beñat Rezusta, Oinatz Bengoetxea eta Jokin Altuna



Sari berezia Iñigo Salbidea eta Fernando Vidarteri



Sari berezia: Roke Etxabe



Sari berezia: Pedro Agirregomezkorta (Antonio Azpiazuk jaso zuen)



David Mendazona (judo)



Jose Luis Otaegi (futbola)



Antonio Romera (txirrindularitza)



Martin Hernandez (atletismoa)



Iban Rogei (ehiza)



Zuriñe Zangitu (igeriketa)



Markel Ferreño (urpekaritza)



Juan Mari Uranga (herri kirolak). Haren ordez Joseba Arrizabalagak jaso zuen



Marga Zapata (motoak)



Julen Mantecon (arku tiraketa)

# Eguberriei errepasoa





*Nazioarteko Xake Txapelketan Ider Borya frantziarra izan zen irabazlea*

**Joan dira ospakizunez betetako Eguberriak. Argazkiotan momentu batzuk jaso ditugu. Gehiago ikusteko, www.barren.eus webgunean sartuta aukera dago.**

Nazioarteko Xake Txapelketa, 2015eko kirol sariak, Gabon Zahar azoka, Elgoibarko Izarraren Tonbola, Jaiotza, San Silbestre lasterketa, Olentzero eta Mari Domingi, erregeen kabalgata… Guztia ondo baino hobeto joan da. Ezusteko bakarra baino ez: Urte Zahar gauean, hainbat elgoibartar adi-adi egon arren, San Bartolome parrokiako kanpaiak mutu geratu ziren eta ez zituzten urte berriko hamabi kanpaikada ezagunenak jo. Itxura denez, kanpaikadak kontrolatzen dituen sistemaren etengailu automatikoa zerbitzuz kanpo laga zuen haize boladaren batek. Hala ere, sartu gara 2016an.
















Laguntza beharrean dauden familien artean, 130 jostailu banatu zituen Gurutze Gorriak











Elgoibar

Elgoibarko Izarrak talo ugari egin eta saldu zituen, Olentzero eta Mari Domingik haurren eskaerak entzuten zituzten bitartean













Raul Garciak Eskuratu zuen Elgoibarko Izarraren tonbolako telebista



## Mendaro





Trinitate elizan egin zieten harrera Olentzerori eta Mari Domingiri. Han bertan ipuin lehiaketako sariak banatu zituzten









# .....Gabon Zahar feria.....





2015eko Gazta Txapelduna izendatu zuten Mausitxa



Txillarre, barazki onenen saria jasotzen.





Armueta Berria, mendiak ondoen zaindu dituen baserria.





## Elgoibar











## Mendaro





## LANA...............................

### Eskaerak

Adineko pertsonak zainduko nituzke, orduka edo interna moduan aritzeko prestutasuna. Erabateko disponibilitatea. Gida-baimena daukat.
631 343 232

---

Adineko pertsonak edo umeak zaintzeko prest. Garbiketa lanak egiten edo lantegietan ere lan egingo nuke. Orduka lan egiteko prest.
667 301 325

---

Adinekoak zaintzeko prest. Orduka lan egiteko prest.
632 687 874

---

Adineko pertsonen zaintza eta etxeko garbiketa lanak egingo nituzke. Orduka edo jardunaldi erdira goizetan. 602 419 142

---

Adineko pertsonen zaintza eta etxeko garbiketa lanak egingo nituzke Elgoibar inguruan.
640 340 848

---

Adineko pertsonen zaintza eta etxeko garbiketa lanak egingo nituzke. 617 571 210

---

Sukalde laguntzaile lanetan aritzeko prest, garbiketa lanak ere egingo nituzke. 636 882 838

---

Garbiketarako edo adinekoak zein umeak zaintzeko.
631 748 977

---

Garbiketarako edo adinekoak zein umeak zaintzeko prest. 632 454 417

---

Adinekoak zaintzen lan egiteko prest, baita orduka ere. 685 263 228

---

Garbiketa lanetarako prest nago. 626 603 673

---

Lehen Hezkuntzako umeei eskola partikularrak emateko prest. 644 297 578

---

Interna moduan lan egiteko edo gauez orduka zaintza lanak egiteko prest. 632 408 771

---

Adinekoak zaintzeko edo sukaldari laguntzaile moduan lan egiteko prest. 661 064 027

---

Adinekoak zaindu edo sukaldari laguntzaile moduan lan egiteko prest. 606 354 982

---

Adineko pertsonak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. 722 554 395 / 602 419 148

---

LHko haurrei eskola partikularrak emateko prest nago. Bereziki ingelesa. 666 667 183

---

Adineko pertsonak zaintzeko prest nago, orduka eta baita etxean bertan bizi izaten ere. Esperientziarekin eta erreferentzia onekin.
626 407 923

---

Edozein lan egiteko prest nago. 632 459 224

---

Elektrizitate –diploma daukat–, pintura edo iturgintza lanetan jarduteko prest, baita adinekoak zaintzeko ere. 632 873 111

---

Etxeak, lokalak, tabernak... garbitzeko prest nago. Berehala lanean hasteko prestutasuna. Erreferentzia onak ditut. 648 039 187

---

Lantegietako biltegietan lan egiteko prest (esperientziarekin). Baserrietako animalien zainketan eta egurra mozten aritua. 632 617 342

---

Garbiketa lanetarako prest, interna edo externa moduan. Dendari moduan ere esperientziarekin. 602 172 993

---

Arratsaldeetan umeak zaintzeko prest nago. Euskalduna naiz eta esperientzia dut. 615 734 462

### Eskaintzak

15-30 urte bitarteko mutil gaztea behar da larunbat arratsaldeetan (18:00-21:00) beste mutil gazte bati konpainia egiteko. 615 787 118

---

Sukaldari laguntzailea behar da Eibarko taberna baterako. 620 810 120

## ETXEBIZITZAK...................

### Salmenta

Etxebizitza saltzeko premia! Zenbatekoa negoziagarri. Bernardo Ezenarro 4,1.C. Trastelekua eta garajea ditu. 943 740 140

### Alokairua

Alokairuko etxebizitza merke baten bila nabil Elgoibarren.
628 014 327

## GARAJEAK........................

### Salmenta

Garaje itxia salgai Sigmako industriagunean, ehiza eta arrantza dendaren azpian. 28 m2 eta bi solairu. Oso zabala. Autoa eta motoa gordetzeko lekua, garbitokia eta bainugela. Sarrerako ate automatikoa urrutiko agintearekin. 651 525 602

## LOKALAK........................

### Alokairua

Xagua taberna alokatzen da, San Frantzisko kalean.
605 741 485.

## BESTEAK........................

### Salmenta

Idotorbe elkarteko bazkide partaidetza salgai, oso modu onean.
943 742 586

---

Karro denda salgai, oso modu onean. 4-6 toki eta osagai guztiak barne (hozkailua, sua, bi kutxa...). 1.800 euro. 615 734 462



**P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar**
**☎ 943 743 140 - rosapf@telefonica.net**
NORFO SL

**Gure bizilagunen elkarteak igogailuaren mantenua egiteko enpresa bat kontratatu zuen. Azken ikuskapena egin ondoren, jakinarazi digute hainbat konponketa egin behar direla. Konponketa horien mantenua egiten duen enpresak eman digun aurrekontua oso garestia iruditu zaigu. Beraz, jakin nahi genuke konponketa beste enpresa batek egin dezakeen, eta, hala balitz, desegin daitekeen hamar urterako egin genuen kontratua –oraindik lau falta dira betetzeko–.**

Igogailuen mantenu kontratua zerbitzuen alokairuan sartu behar da (zerbitzuen prestazioa prezio baten truke). Oro har, arautzen dituen enpresekin egindako mantenu kontratuaren helburua da aldikako ikuskapenak egitea, instalazioak koipeztatzea, doitzea, matxurak konpontzea eta konponketetarako piezak ordezkatzea. Beraz, aurrez esandakoa bezalako ezohiko ikuskapen edo konponketak, derrigorrezko ikuskapenen ondorio direnak, kontratutik kanpo geratuko lirateke. Hortaz, lan horiek kontratutik kanpo fakturatzen dira. Bizilagunen elkarteak, lan horretarako, kontrata dezake ohiko mantenua egiten ez duen beste enpresa bat. Gainera, elkarteak aurrez desegin dezake kontratua. Beti ere, baldin badago, aurretiaz jakinarazteko epea bete behar du, eta, hala ez balitz, onartuko litzateke kalte-ordaina abonatzea besteei eragindako kalteak direla-eta. Hori da gehiengoaren jurisprudentzia-iritzia.

***AHOLKUA:*** Kontratutik kanpo dagoen lan bat izanik, orain ohiko mantenu lanak egiten dituen enpresak baino prezio eta baldintza hobeak eskaintzen dituen beste enpresa bati eska dakioke lan hori egitea.

***ROSA Mª PINTADO:*** *Etxaldeen Administraziorako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749*

administradores



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeko bulegora, edo *barren@elgoibarkoizarra.eus* e-postara bidali.



Sorginak zurekin ere gogorau dira, **Ihintza**. Zorionak printzesa! Ondo-ondo pasa eguna. Bi muxu potolo.



Zorionak, **Ekain**, zure 7. urtebetetzean, zure senide guztien partez.



Zu zara erregeek ekarritako oparirik ederrena! Zorionak, **Lucia**, lehen urtebetetzean, familia eta bereziki Alex eta Mikelen partez.



Zorionak, **Irene**! Urtarrilaren 2an 8 urte bete zenituelako. Muxu handi bat familiakoen partetik.



Zorionak, **aitita Julian**, **Irune** eta **amama Maria Jesus**. Zuen urtebetetze egunetan primeran pasatu genuen. Etxeko guztien partez eta bereziki Julen eta Garaziren partez.

Erretratu bakarreko agurra: 4'50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€



## 8 BARIXAKUA

**16:00** Patinatzeko pista. Urtarrilaren 10era arte. 11:00-13:00/16:00-20:00. Lekueder parkean.
**17:30** Jaiotza mekanikoa. Astelehenetik barixakura 17:30etik 20:30era. Zapatu eta jai egunetan 10:30etik 13:30era eta 17:30etik 20:30era. Urtarrilaren 17ra arte. Parrokiako lokalean, Lekueder parkean.
**18:30-20:30** Odol-ematea. Antolatzailea: Elgoibarko odol-emaileen elkartea. Osasun zentroan.
**20:30** Kontzertua: Ruper Ordorika. Antolatzailea: Arnaldo Askatu Herri Ekimena. Herriko Antzokian.
**22:00** Pilota partidak: San Anton pilota txapelketako final-erdiak. Promesa maila: Agirremalloa-Ibarloza/Lerena-Salaberri. Senior maila: Urbieta-Uriz ar/Ugalde-Murgiondo. Antolatzaileak: Lagunak Taldea eta Udal Kirol Patronatua. Ikastolako frontoian.

## 9 ZAPATUA

**22:00** Idien arteko desafioa. Artazo eta Soarte elgoibartarrak. Antolatzailea: Sigmako Probaleku Elkartea. Sigmako probalekuan.

## 14 EGUENA

**19:00** Elgoibarko Euskararen Ondarea *www.elgoibarreraz.eus* webgunearen aurkezpena. Antolatzailea: Elgoibarko Udaleko Euskara Saila. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

## 15 BARIXAKUA

**19:00** Erakusketa: *Poloniako argiak* erakusketaren inaugurazioa. Herri Eskolaren eta Anna Nosowicz artista poloniarraren artean egindako erretratu erakusketa. Urtarrilaren 22ra arte. Antolatzaileak: Elgoibarko Herri Eskola, DSS2016 eta Elgoibarko Udala. Kalegoen plazan, Udaletxeko arkupeetan.
**20:30** Opera komikoa: *Mozkorra parregarri*. Euskalerriaren Adiskideen Elkartea. Herriko Antzokian.
**22:00** Pilota partidak: San Anton pilota txapelketako finala. Antolatzaileak: Lagunak Taldea eta Udal Kirol Patronatua. Ikastolako frontoian.

## Eguberrietako zozketak

EUSKAL PRESOEN ALDEKO OTARRA: **06.359**

Ordezko zenbakiak:
1) 04.836
2) 09.522
3) 06196

Sariduna ez zen 48 orduko epean agertu eta ordezkoak jaso zuen otarra.

CD ELGOIBAR

1. saria: **10076**
1. sariaren ordezko zenbakia: 10.666
1.sariaren 2.ordezko zenbakia: 20.688

2. Saria: **14754**
2.sariaren ordezko zenbaki: 12499
2. sariaren 2.ordezko zenbakia: 07573


**BARREN Elgoibartik kanpo jasotzen dutenentzako oharra**

Hego Euskal Herria eta Espainia: **28€**
(Elgoibarko Izarrako bazkideek **22€**)

Ipar Euskal Herria eta Europa: **41€**
(Elgoibarko Izarrako bazkideek: **31€**)

Europatik kanpo: **53€**
(Elgoibarko Izarrako bazkideek: **42€**)

BARREN

Harremanetarako:
943 744 112
edo
*barren@elgoibarkoizarra.eus*



## Zinea (Herriko Antzokian)



### 'El puente de los espias'

8 Barixakua, 21:30
9 Zapatua, 19:00
22:15 (Jatorrizkoa azpitituluekin)
10 Domeka, 19:00
11 Astelehena, 21:30

**Zuz.: Steven Spielberg. Aktoreak: Tom Hanks, Mark Rylance, Amy Ryan, Scott Shepherd, Sebastian Koch, Billy Magnussen, Alan Alda, Jesse Plemons, Eve Hewson, Peter McRobbie, Austin Stowell, Domenick Lombardozzi, Michael Gaston.**

James Donovan (Tom Hanks), Brooklyn-eko abokatua da eta ustekabean bere herrialdearen eta Sobietar Batasunaren arteko Gerra Hotzean sartzen dute. CIAk eginkizun zail bat agindu dio: Sobietar Batasunak harrapatutako Estatu batuetako pilotu (Austin Stowell) baten askatasuna negoziatzea.



### 'Yoko eta lagunak'

10 Domeka, 16:30

**Zuz.: Juanjo Elordi eta Rishat Gilmetdinov.** Vik eta gurasoak hirugarren aldiz aldatu dira beste hiri batera. Vik lotsatia da eta nekez egiten ditu lagunak. Gainera, harremanak egiten dituenerako, aitari beste lan bat ematen diote urruneko toki batean. Oraingoan, berehala egin ditu lagunak hiriko parkean: Mai eta Oto. Haien jolasak oso alaiak dira eta parkeko izaki magiko bat erakarriko dute: Yoko. Egunero, eskolatik irtendakoan, korrika joango dira parkera eta abentura liluragarriak bizitzera. Baina berriz ere aitari lanpostua aldatu diote, beste hiri batera.

## Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

**09:00 - 22:00**
8 Barixakua BARRENETXEA
9 Zapatua IBAÑEZ
10 Domeka IBAÑEZ
11 Astelehena GARITAONANDIA
12 Martitzena ETXEBERRIA
13 Eguaztena FERNANDEZ
14 Eguena YUDEGO
15 Barixakua ORUESAGASTI

**22:00 - 24:00**
Astelehenetik domekara
GARITAONANDIA

**24:00 - 09:00**
ELORZA (Eibar)
Juan Gisasola, 18 - 943 206 100

* Fernandez: Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro) Tel.: 943 756 142
* Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze) Tel.: 943 751 638
* Oruesagasti: Kalebarren, 9 (Soraluze) Tel.: 943 751 384

## Telefono interesgarriak

| | |
|---|---|
| Elgoibarko Izarra | 943 741 626 |
| Udaltzaingoa | 943 741 394 |
| Udalaren arreta bulegoa | 943 741 050 |
| Udaleko idazkaritza | 943 743 700 |
| Bake epaitegia | 943 741 630 |
| Gizarte Ongizate saila | 943 741 008 |
| Hirigintza | 943 744 384 |
| Mankomunitatea | 943 700 799 |
| Debemen | 943 744 067 |
| Artekaritza (Hazienda) | 943 744 414 |
| Berdintasun saila | 943 741 050 |
| Euskara saila | 943 744 366 |
| Kultura saila | 943 742 158 |
| Udal liburutegia | 943 743 525 |
| Gazteria saila | 943 531 319 |
| Gazte informazio gunea | 943 257 986 |
| Ludoteka | 943 748 883 |
| Gaztelekua | 943 743 228 |
| Enplegua-Merkataritza | 943 741 050 |
| Emugi | 943 747 371 |
| Kiroldegia | 943 744 415 |
| Mintxeta | 943 747 356 |
| Musika eskola | 943 742 145 |
| Udal euskaltegia | 943 742 731 |
| AEK euskaltegia | 607 601 423 |
| KZgunea | 943 023 640 |
| Jubilatuen biltokia | 943 740 526 |
| San Lazaro egoitza | 943 740 296 |
| Eguneko zentroa | 943 744 565 |
| Kontsumo bulegoa | 943 743 088 |
| Taxi geltokia | 943 740 898 |
| Larrialdiak | 112 |
| Gurutze gorria | 943 743 864 |
| Eusko tren | 902 543 210 |
| Pesa | 902 101 210 |
| Jokalari anonimoak | 657 710 156 |
| Alkoholiko anonimoak | 629 141 874 |
| Correos - Posta | 943 741 547 |
| Mendaroko Udala | 943 033 282 |
| Liburutegia | 943 033 291 |
| Bake Epaitegia | 943 033 289 |
| Eguneko Zentroa | 943 031 746 |
| Mendaro Ikastola | 943 756 141 |
| Haurtzaindegia | 943 755 219 |
| Musika Eskola | 943 244 275 |
| Taxi | 607 57 57 28 |
| Ospitalea | 943 032 800 |



**Iñigo Lamelas**

## Jose Luis Azpillaga



Kalegoen plaza, bai ederra! San Bartolome eliza alde batean, eta udaletxea bestean. Harrizko eraikinak biak, armarri eta apainduraz hornituak, dotore. Ederki argiztaturik ageri dira, Gabonetako argi eta guzti. Ederra benetan! Baina…, niri behintzat, tristura eta ezinegona edo beldur pixka bat ere eragiten dizkit argazkiak. Eta sumatzen dut zein izan daitekeen arrazoia: ez dago inor plazan, ez umerik, ez zaharrik, ez neska, ez mutil, ez emakume eta ez gizon… bizitzarik ez dago, dena ikusten da hilda, bizirik gabe. Eta galdera hau datorkit burura: zertarako da plaza bat, bizia falta bazaio, umerik ez badabil jolasean, pertsonarik ez joan-etorrian, edo bankuetan eserita, berbetan edo egonean?

Izan ere, zer dira gauzak, objektuak eta lekuak bizitzarekiko harremanik gabe? Zeinen tristea eta hila parkea edo jolastokia umerik gabe; etxe eta herri abandonatuak, bizilagunik gabe. Bai hitsa iturria edo erreka urik gabe; itsasoa olaturik gabe, tximinia surik gabe, belarra haizerik gabe, aterkia euririk gabe. Bai iluna geltokia trenik eta bidaiaririk gabe, zuhaitza hostorik gabe, bizikleta gurpilik gabe. Zertarako kometa haize barik, gutuna edo liburua irakurle barik, jostailuak ume barik? Zentzurik ba al du hizkuntzak hiztuna falta bazaio; musikak entzulerik ez badu, zinemak ikuslerik ez badu? Zertarako ezpainak laztanik gabe? Besarkadak lagunik gabe? Nola bizi daiteke pertsona askatasunik gabe?

Urte berri on bizitzaz betea denoi!

*"Zertarako da plaza bat, bizia falta bazaio, umerik ez badabil jolasean, pertsonarik ez joan-etorrian, edo bankuetan eserita?"*






## Luzia Arizaga Arrillaga

(1935-2015)

2015eko abenduaren 28an hil zen.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.





## Adela Fernandez Arias

2015ko abenduaren 21ean hil zen, 78 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.





## Eusebio Cenarruzabeitia Bengoetxea

2016ko urtarrilaren 3an hil zen, 87 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.





I. URTEURRENA

## Jesus Mari Zabala Mendizabal

2015eko urtarrilaren 9an hil zen, 71 urte zituela. Haren oroimenez
I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, urtarrilak 9,
arratsaldeko19:00etan Elgoibarko San Bartolome Deunaren
eliz-parrokian. Joango zaretenoi aldez aurretik eskerrak.

***Zorion iturri zinan***
***aitxitxa, aita, laguna***
***kimu berri bihurtu da***
***guri eman zeniguna.***
***Jarraituko dugu lantzen***
***zuk egin ezin duzuna.***
***Maitasunak bete dezan***
***utzi diguzun hutsuna.***



ORIGINAL
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

Santa Klara kalea, 28 behea
20870 **ELGOIBAR** Gipuzkoa
T. 943 74 12 59
original@original-cg.com
www.original-cg.com

ORIGINAL komunikazio grafikoa diseinu estudio bat da, bere irudimena askatzeko ausardia duena. Hainbat tresna erabiltzen ditu bide bati ekiteko eta sormen handiko eta kalitatezko proiektuak gauzatzeko.

ORIGINAL komunikazio grafikoa-k zerbitzu integrala eskaintzen die bere bezeroei, eta haien zerbitzura jartzen ditu eskura dituen baliabide guztiak.




*Bulego berria proiektu berrientzat. Zure zain gaude!*

“Bezero bakoitzaren beharretara egokitutako diseinua”

**1 Identitate korporatiboa**

Logotipoen diseinua, Eskuliburu Korporatiboa, papergintza administratiboa, txartelak, gutunazalak, karpetak, gutun orriak…

**2 Edizio Grafikoa**

Katalogoak, liburuxkak, aldizkariak, liburuak, tarifak, iragarkiak, kartelak, panelak, packaging, roll-up-ak, pop-up-ak, olanak…

**3 Produkzioa**
Amaierako artea

Inpresio Digitala
Offset inpresioa
Serigrafia
Errotulazioa
Argazkigintza

SOLUTION